



Irakurmena

Egitekoa

Irakur ezazu artikulua, eta ondorengo orrian aurkitu testutik kendutako zatiak. Esaldi bat sobera dago. 0 adibidea da. Idatzi letra dagokion laukian.

Erantzun zuzen bakoitzeko **puntu 1** lortuko duzu. Erantzun okerrengeatik ez da punturik kenduko.

—2.TESTUA—

Gehiegi garbitzearen paradoxa

Fisioterapeuta ofizioz, oro har osasunarekin lotutako gai guztiekiko agertzen du jakinmina Oier Gorosabel Larrañagak. Higienez hitz egiteko bildu gara oraingoan berarekin. Garbitasunaren testuinguru kultural eta historikoa azaltzeko, atzera egin du denboran, greziar eta erromatarren garaiko bainu-etxeetatik hasi eta(0).....: “Egungo garbitasun-eredua XIX. mendetik dator, European osasun-arloan eman zen iraultzatik, hain zuzen. Izurritei aurre egiteko higie publikoa bultzatu zen eta osasun-maila izugarri igo zen”. Iraultza horrek gaur normalak diren ur-korrontea, komunak, antiseptikoak eta zabor-bilketa lortu zituen, besteak beste. Hala ere, azken urteetan gero eta gehiago garbitzen gara eta(1)....., hainbat adituren hitzetan. Horixe paradoxa.

Garbia eta zikina kontzeptuak erlatiboak dira, beraz: “.....(2)..... . Azala olio eta hondarrez eginiko nahastearekin igurtzen zuten eta ondoren strigilis izeneko igitai antzeko batekin kendu. Egun, zikintzat hartuko genuke hori”, dio Gorosabelek. 1850. urte inguruan, gaixotzean edo ezkondu aurretik soilik bainatzea zen ohitura. 1900 aldera urtean behin egiten zuten europarrek, “baita aberatsek ere”. Eta urrutira joan gabe, 1980ko hamarkadan(3)..... . Gaur, ordea, egunero behin edo gehiagotan egitea da ohikoena.

Xaboa da kaltegarriena

“Xaboiak gure amonaren bizimodua irauli zuen. Euskal Herrian 1900. urte inguruan azaldu zen eta(4)..... . Diru pixka bat zuenak xaboa erosten zuen eta garbitoki modernoetara joaten zen arropa garbitzera”. Azalpen horri tiraka, Gorosabelek esan digu xaboa ez dugula neurrian erabiltzen.(5)..... ekar ditzake arazo nagusienak; azala babesik gabe utzi eta zenbait gaixotasuni ateak zabaltzea, esaterako. Izan ere, epidermisaren kanpoko geruza eta izerdia gehiegitan kentzeak bakterien ugalketa ekarriko du,(6)..... . Tenperatura-aldaketen aurrean gorputza egokitzea zailagoa izan daiteke, gainera.

Gakoa nork bere beharrak aztertu eta neurriak hartzea litzateke; maiztasuna eta erabiltzeko diren produktuak kontuan hartzea, alegia. Lanagatik edo dena delakoagatik(7)..... xaboi leunagoak balia ditzake, eta sarri dutsatzen ez den pertsonak xaboi puruak. Gorputzeko atal guztiak ez direla berdinak gogorarazi digu Gorosabelek. Besapeek, hankarteak edota oinek usain sendoa goa dute eta(8)..... aurpegiaren edo besoen kasuan baino. Dena den, ez garela itsutu behar dio: “Gorputzaren usaina ez dago modan eta ezabatzen saiatzen gara. Inoiz garbitzen ez den pertsona bat zikina iruditu dakiguke, baina ez da horregatik gaixotuko”.

Ainhua Mariezkurrena
Argia, 2018/09/16
(Probarako moldatuta)

—2.TESTUA—

Aukera ezazu erantzun egokia. Zure aukera erantzun-orrian idatzi (orrialde honetan ez).

Adb.: 0.= e.- gaur egungo “hipergarbitasunaz” mintzatzera heltzeko

- a. erromatarren garaian ez zen xaboirik erabiltzen
- b. egunero dutsatzeak ez, egunero xaboa erabiltzeak
- c. normalena astean behin dutsatzea zen
- d. horiek garbitzeko premia handiagoa da
- e. gaur egungo “hipergarbitasunaz” mintzatzera heltzeko
- f. eta errazago sartuko dira gorputz barrura
- g. lixibaren ordezkia izan zen
- h. horrek osasunari kalte egin diezaioke
- i. egunero dutxa hartu behar duenak
- j. izan ere, egun urik gabe garbitzeko produktuak ohikoak dira